

Aretxabaleta,
1992ko uztailak 30

Aretxagazeta

Alkatearekin berbetan

• *Muru-alden San
Iñazio jaiak.*

• *U.D.A hurrengo
urtea prestatzen.*

• *Amantalaz:
Rafa Valdezate.*



Abuztuan sartzer
goaz eta Andramaixa
usaina hedatzen hasi
dure herrian. Jende asko
kanpoan dago fetxa
hauetan, herrian, mendian

**"Andramai-
xak indartu
egin behar
dira, gero
eta jende
gehiago
etorri
dadin"**

ANDRAMAIXAK

edo hondartzan egun bat-
zuk pasetan. Eta honek su-
posatzen du Aretxabaletan
biztanle kopurua dexente
jeistea.

Hala eta guztiz ere,
Andramaixazale batzuk
urtero bueltatzen gara
abuztuaren 14erako, ondo
pasetako asmoz; agian jaia
hau gure barruan sentit-
zen dugulako, edota Are-
txabaletako benetako jaia
delako; ez dakit, baina
batzuek behintzat
egun handiak dira eta
bakarrik aldatzea erokeria
litzateke.

Beste jende bat, lana-
gatik, etxean gaixoren bat

dutenak, edota diru gutxi
manejatzen dutenak, de-
rri gorrez geratu behar iza-
ten da eta hauei ere oso
ondo datozkie Andra-
maixak. Eta gainera, fetxa
hauetan gehienok gaude
oporretan, ez dago beste
zereginik; hau ere oso
inportantea da eta bestela
galdetu Arrasaten lan egi-
ten duten Eskoriatzarrei, ea
zer moduz San Pedrotan.

Gero beste batzuk,
jairik sekula ez dutenak,
zera galdetzen dizute An-
dramaixen ostean: zer,
esan dostie oso jende gutxi
egon dela aurten, igaz
baino askoz ere gutxiago,

bai? Nik betik gauza bera
erantzuten dut: Zuri bost
axola, ez bait zara egon
eta ni, enteratu ere ez naiz
egin; Mus Txapelketa, pi-
lota partiduak, txaranga,
zezenak, bolak... fijatu ere
ez naiz egin jendeaz.

Eta bukatzeko, Andra-
maixazale batzuk, bidaia
luze bat dela edo bestea
dela ezin dira herrira hur-
bildu, baina ziur nago
abuztuaren 15ean
txanpanarekin bazkalduko
dutela.

**ONDO PASAU ONDO
PASAU ANDRAMAIXEK!!**

**Alfredo Meabe
Kirol monitorea**

Aretxagazeta


Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarteak, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa: 79 01 05. 151 postakubxatila
Zuzendaria: Jokin Anbxa, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Agurtzane Elkoro, **Argazkiak:** Josu Lazkano **Kolaboratzaileak:**
Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Anbxa, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Anbxa, Julen
Zuazabeitia, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan
egiten da.

Zer daukazu esateko?



Eider Otxoa
(Ikaslea)

Atxabaltako futbolariorik anexoan bankilo batzuk gutxienez euki beharkogenituzke. Neguan kriston hotza pasetan dugu, eta udan nonbaiten jartzeko leku bat ez litzateke bape txarto etorriko.



Paulin Bengoa
(Langilea)

Ea Atxabaltako margolariak animetan garen Atxabaltatik kanpora urteten pintetan. Bada-go talde txiki bat zerbait dakiena, baina ez dute kanpora urteten. Ea Atxabaltarren izena pintura arloan zabaltzen den.



Pepi Rosado
(Langilea)

Andramaixen eguna aldatu egin beharko litzateke. Ni urtero etorten naiz, baina tristeak iruditzen zaizkit, jende gutxi etorten delako.




Javier Etxebarrieta
(Langilea)

Atxabaltako erdialdean hainbeste industrialde egin beharrean, zergatik ez dituzte parkeak egiten. Industrialdeak, herriaren kanpokaldean egin beharko lirateke.

OPORRAK !

Urte guztian lanean ibilita gero, abuztuaren lehenengo hamabostaldian oporrak hartuko ditugu. Beraz datorren hamabostaldian ez duzue Aretxagazeta zuen etxeetan jasoko. Andramixen ostean barriro zuekin egongo gara. Ondo pasau oporrak eta bueltararte.

Andamaixen ostean, zenbaki berezi bat atarako dugu, herriko jaietako buruzkoa. Jaietako gauza bitxiak kontatuaz. Ea jende asko elkartzen garen Andramaixetan eta gauza asko daukagun kontetako zenbaki berezi horretan.



Jaiak Muru-Alden

San Iñazio eguneko ohiturari jarraituaz, aurtan ere Muru-Alde soziedadeak, uztallaren 31n San Iñazio jaiak ospatuko ditu.

Ospakizuna 12,30etan hasiko da, bolo txapelketarekin. Txapelketa horretan, sari politik egongo dira partaideendako. Eguerdian, soziedade aurrean Saltsamaltza taldearekin dantzaldia egongo da. Dantzaldiaren ostean ba-

zkariaren txanda izango da: Entremesak, legatza, solomiloa eta kafea. Tripa bapo beteta gero, bazkalostean bertsolariak eukiko dituzte: Lazkao Txiki eta Zeberio.

Arratsaldean zehar soziedadean jai giro handia egotea espero da. San Iñazio eguneko ospakizunekin bukatzeko gabean, barriro ere Saltsamaltza taldearekin dantzaldia izango da.

Opor aurretik udal batzaren aztergaiak

Martizenean, hileroko plenoa izan genuen udaletxean. Bertan aztertutako gaiak honako hauek izan ziren:

1.- Dabid Agirre Unzueta zinegotzi karguaz jabetzea. Batzorde informatibo eta beste erakundeetako H.B talde politikoaren ordezkari barriak izendatzea.

2.- Bedarretako San Migel auzunearen azpigitura barritzeko egitasmoa behin betiko izendatzea.

3.- Mitarte kaleko 1. behean egiten dabilzan iharduera.

4.- Ahate haztegia eta hiltegia: toki zergetatik libre uztea.

5.- 22-A (Santa Kurtz)guneko Batzorde Berdintzailearen Oinarri eta Estatutuen behin betiko Egitemuaren onarpena. Zuzendaritza kontseilurako Udal ordezkaria izendatzea.

6.- 30 Gunerako Zatikako Egitemuari hasierako onarpena emon eta lur sailen berzatatikaren espedienteazabaltzea.

7.- Javier Oñaderra jaunak Baintxean, bere jabegoko lurretan egindako lan batzu legeztatze proposamena.

8.- Aurreko legealdian Udalean egindako zinegotzi lanengatik, Luis Errasti Enekotegi Jaunari ororigarria emotea.

Zein da aldizkaririk irakurriena Aretxabaletan? Zure publizitatea 2.,5000 txokotara iristea gura baduzu, dei egin. Izena emango dizu Aretxagazetan iragazrtzeak.

Deitu 79 01 05 telefonora.



'Bere Bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte kalea
Tfnoa: 79 73 65


IMANOLALTUBE

**ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK**

Durana, 36
Tfnoa: 79 10 60
ARETXABALETA

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43



Kepa Urrea gose greban

Puerto-2 espetxean dauden preso politikoak gose greban daude uztailaren 5az geroztik, euren artean Kepa Urrea Atxabaltarra dago.

Kepa Urrak dagoeneko 10 bat kilo galdu ditu, gose greba egiten hasi zenetik, funtzionarien aldetik sufritzen dabilzan presioengatik: Hiru egunez behin zeldaz aldatu, gabeen lorik egitea galerazi. Gose greba horren helburua presoen eskubideen errespetu eza da: zelden garbitasun eza, funtzionarien jarrera probokatzailea, euskarak jasaten duen diskri-

minazioa, kartzelan dauden sendagileen bisita ukatuak, presoek beste presoekiko harremanak galeraziz...

Senideak taldeak dienez, Puerto 2 ez da kasu bakarra, orokorrean estatuan sakabanatuak dauden Euskal Preso guztiak egoera berean daude: Salto del Negron orain dela gutxi bukatu dute gose greba, Ceutan....

Hori denori dela eta, astean zehar enkarteladak egin dira eta horrela jarraituko dute, gose greba bukatu arte.

Martxa Ekologikoa

Uztailaren 19an Martxa Ekologikoa egin zen, Deba erreka-eremu garbiketa eta berreskuratzea eskatzeko.

Martxa Ekologiko hori orain dela 14 urte hasi zen, aurten ere Amilotx Atxabaltako Ekologi taldea batu zaio. Amilotx taldeak bere ibilbidea egiten Eskoriatzan hasi zen, Deba Garaiko herri guztiak zeharkatuz (Aretxabaleta, Arrasate, Bergara), gero Soraluzera eta Maltzagako kurtzeraino. Puntu horretan, Bizkaiko eta Eibarreko talde desberdinekin elkartu ziren.

Taldea, martxa pasetan zen herri guztietan gelditzen zen eta, azkenik Deban, kontzentrazio txiki bat egin zuten.

Martxa goizeko 9,30etan hasi zen, 11,30etan Maltzagako kurtzean elkartu ziren eta Deban eguerdiko 13,30etan heldu ziren. Arratsaldeko 17,30etan bakoitza bere herrira bueltatu zen.

• Aurten ere, urtero bezala, abuztuan, Aretxabaletako igerilekuko karnetarekin, Arrasateko pisinetara joateko aukera izango da. **Abuztuan Atxabaltako pisinak itxita egongo direlako.**

• Aretxagazetaren zenbaki batean San Migeletan tanborrada egiteko asmoa zegoela jakitera eman genuen. **Azkenik, batzar luze batzuen ostean, ez da tanborradarik izango.**

IRIARTE

Umeen denda



DURANA, 8

Tfnoa: 79 10 96



Aretxabaletako industrialdea

Basabe poligonoa B-0

Tfnoa: 79 62 80



DORLAK

DORLA, S.A

ARETXABALETA

BASABE POLIGONOA, C.O.2.3

Tfnoa eta Fax (943) 79 82 77



Everest 92ren aurkezpena

Alberto eta Felixek, Iñurrategi anaiek, eta Jose Ramon Zubizarretak uztailearen 23an, Everest 92 espedizioaren aurkezpena egin zuten Aretxabaletako udaletxean. Aurkezpenean hiru lagunak oso animatuta eta gogo handiz ikusi genituen.

Everesterako urteera datorren uztailearen 31n izango da. Bilbotik Londresera, gero Dhelira, abuztuaren 1ean Katmandura heltzeko.

30 edo 33 porteadore kontratatuko dituzte 1.000 kilogramoko pisua igoteko. Eurek espedizioaren ezaugarri nagusienarikotzat arintasuna aitutzen zuten. Behin porteadoreak kontratatuta gero, aproximazioa egingo dute. Abuztuaren 25etatik 30era 5.300 metrotan

kokatuko dute kanpamendu basea. Irailean mendiko klimatizazioa eta mendiko lanak egingo dituzte. Irailean zehar goragoko kanpamentuak joango dira ipintzen, lehenengo 6.100mtan, bigarrena 6.500mtan, hirugarrena 7.200m tan eta azkena 7.936mtan. Tontorretarako saiok irailaren 25etik aurrera eta urriaren lehengo 5 egunetan egingo dituzte.

Guzti horretarako presupustua 6.150.000 pezetakoa izango da. Horretarako laguntza bereziak izan dituzte: Kutxa, Lankide Aurrezki Kutxa, Aztore, Fagor, Eroski, Ulma, Leya, Inemo, Aretxabaletako eta Eskoriatzako Udala...eta jakina, herriarrena.

UDALETIK

Presupuestuak

Joan zan astea beste andramaixetako presu- Aretxagazetan agertu- puestoaz bukatu: takoa jararituko dugu eta

Abuztuak 16

Txirindularitza.....	300.000
Herri Kirolak.....	135.600
"Incansables" txaranga.....	120.000
Joku Herrikoiak.....	50.150
Parkea.....	141.250
Oskar eta Mikel trikitaliraia.....	75.000
Pelola partiduak.....	19.000
GUZTIRA	841.000

Abuztuak 17

"danok bat" txaranga.....	157.070
Bazkaria.....	20.000
Soka Muturra.....	85.000
Haurrentzako Tailerrak.....	15.000
Herri bazkaria.....	75.000
Buruhandiak.....	8.000
"ikuzka" txaranga.....	157.070
GUZTIRA	612.140

Gauza gehiago

Suzko erruberak.....	19.200
Loiolako Herri Irratia.....	35.000
Jaietako pograma.....	200.000
Suzko zezenaren eramailea.....	5.000
Argazkiak.....	7.000
Plakak eta trofeoak.....	35.000
Egile eskubideak.....	25.000
Lan gehiago.....	200.000
GUZTIRA	526.200

Guztira

ABUZTUAK 14.....	232.000
ABUZTUAK 15.....	1.879.820
ABUZTUAK 16.....	814.000
ABUZTUAK 17.....	612.140
GAUZA GEHIAGO.....	526.200
GUZTIRA	4.141.160



Herri bazkarian, bapojan eta bapojan edan

Orain dela bost edo sei urte, kuadrila desberdinetako zazpi lagun elkartu ziren. Euren asmoa, Andramaixetako hirugarren egunean jendea elkartzea zen, azken egun horri animazio haundiagoa ematea. Horrela, azken egunean kuadrila gehienek kanpoan bazkaltzen dutenez, Herri Bazkaria

egitea erabaki zuten. Hasieran, erdi zoratu ibiliziren, baina azkenean euren helburu nagusia betetzea lortu zuten, gero eta herritar gehiago biltzea.

Historia

Lehenengo urtean, bandejak eta mahaik azkenengo orduan lortu

zituzten, eta baita janaria ere, erresidentziako emakumeek patatak errioxar erara egin zituzten eta oilaskoak okindegiko laban erre zituzten. Bigarren urtean gauza gehiago erosi zuten. Platerrek aldatu zituzten eta platerrekin batera menua ere bai, errusiar entsalada eta galeperrak.

laz ere aldaketa bariak jarri zituzten mar-txan. Euren asmoa, aurreko urteetako jendetza ikusita, plaza mahaiekin inguratzea zen. Lehenengo urtean 60 bat lagun elkartu ziren eta bigarrenengan 230 lagun. Hori ikusita, Elorriotik txahal bi ekarri eta burduntzian erre zituzten. Baina txahalarenak arazo bat zeukan, ezin zen plazan egin, 12 edo 13 ordu behar zituelako egiteko. Azkenean, frontoira aldatu zuten lekua.

Dirulaguntzak

laz arte dena euren kontura izan zen. Baina txahala gehiegi kostatzen zenez, bazkariaren prezio igo egin behar izan zuten. Gainera, hain garestia izan ez zedin, Udalari dirua eskatu zioten. Kostatutakoa: 710.000 pzt.

Aurten, prezioa jais-teko asmotan, txahal bat bakarrik egiteko asmoa dute, iaz asko sobratu zelako. Aurtengo kostua: 543.100 pzt.

Aurten ere eurok izango dira hirugarren eguneko animatzaileak.




**Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria**

**LASA AGUILERA
AHOLKULARITZA**

Andra Mari Auzunea
Tfnoa: 72 29 26

ARETXABALETA



LENIZ

LIBURUDENDA


**HERRIKO
PLAZA**

TFNOA:
791516

**ARETXABALETA
ITURGINIZA**

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Aspaldidanik geneukan alkatearekin egoteko gogoia, bere eritzia beti da interesgarria. Urte beteko legislatura bukatu da, eta beste 3 urte geratzen zaio. Elkarrizketa txiki honetan, azken urtean gertatu dena eta etorkizunera begira Udalak dauzkan asmoak azaldu gura izan ditugu. Horretarako, alkatearengana jo dugu.



"Etxeak eta industria, oreka hori bideratuaz"

• **Alkatetzatik aparte zein da zure lanbidea?**

• Orain lan mota bi dauzkat. Alde batetik "Cooperación Mondragon" horretan, inmobiliaria mundua koordinatu; orain arte talde moduan ez ditugu arlo horiek integratu eta horren ondorioz ez ditugu nahiko ekintza aipagarri lortu merkatuan.

Ni Jaurlearitzatik etorri nintzenean inmobiliaria mundua aztertzeko hasi ginen. Horrela konturatu ginen, baganeuzkala zuzenki nahiko inbertsio garrantzitsu konstruktzio munduan, eta baita beste enpresa intermediarioen

batzuen bidez ere. Guztira badauzkagu 30 mila milioitako urteroko obrak. Beraz, horren truke, guk geure kooperatiben eskakizunak bete nahi ditugu.

Beste alde batetik, enpresa barri bi egin ditugu: "Lagun Aro inmuebles" eta "Lagun Aro intercoop" eta enpresa horren bidez zentro komertzial sare barria egin nahi dugu. Eroski proiektuarekin batera, Espainia mailan lehenengo maila lortzeko. Ni enpresa hauen zuzendaria naiz.

• **Beraz, protagonismo gutxiago legislatura honetan. Zer ba?**

• Daukadan lanak ondorio hauek ekartzen ditu. Alkatetzaren ordezkariak beste baten gain utzi dut. Baina nik uste dut, gure taldea lan polita egiten ari dela.

• **Baina nahiz eta horrela egon, alkatetzaren buruan eukiko duzu ez?**

• Bai, laneko esperientziaren ondorioz, beti ikuspuntu interesgarriak sortzen dira, gero herrian aplikatzeko.

• **Aretxagazetan askotan azaldu da, industria gaizki kokatuta dagoela, parkeak falta direla... ze eritzi duzu horri buruz?**

• Informazio falta handia dago eta eztabaida falta. Baina gure asmoa garbi dago, etxebizitzak eta industriaren arteko konbinentzia hori, ahal denik eta ondoen bideratzea. Horretarako irtenbide bakarra, Atxabaltan aktibitate tertziarioak bideratzea da eta hori da egiten ari garena. Gainera ikusten da ze enpresa mota dauden, A.Z.K, Diana... horrelako enprekin transizio hori lortzen da.

Baina momentu honetan pauso inportante bat egiteko bidean gaude. Bainuetxeko lautada horretan, bazegoen plan partzial bat, industriladea egin den urbanismoa errepikatzea. Azkenik dena alde batera utzi dugu. Eta orain norma subsidiario horretan pentsatu dugu, Atxabaltan lur industriala behar duela eta parke enpresarial bat bidezkoa

"Bainuetxean Industrialdea egitea alde batera utzi dugu eta parke enpresarial bat bidezkoa izango den pentsatzen ari gara".

izango den aztetzen ari gara.

• **Parke enpresarial bat, zergatik?**

• Hor dauzkagu, Ikasbide, bi jatetxe, lehengo balneariko ura. Erreferentzi horiek ikusita, nahiko posible ikusten dugu gauza politak egitea. Horrela, herriari razionalizazio bat emango diogu.

• **Maria Wörth-ekin harremanak zelan daude?**

• Maria Wörth-ekin beste aukera inportante bat daukagu, industria mailan. Ez dago toki haundirik bailara mailan horrelako planteamendu enpresarial aurrerakoi bat egiteko. Anaikidetzaren bidez Eusko Jaurlaritza eta hango Karintiako Jaurlaritzarekin, bien arteko kooperazioarekin akordio bat egiten ari gara. Bide horretatik Jaurlaritzarekin eta Diputazioarekin laguntza lortu nahi dugu marko enpresarial hori errealitate bihurtu ahal izateko.

• **Etxebizitza dela eta, gazteen aldetik entzuten da karu daudela, zer eritzi daukazu horri buruz?**

• Betikoa gertatu da. Lan hori inizatiba pribatuari utzi diogu. Horiek lurra ere kontrolatu dute eta baita eskaintza era. Horrek prezioen gorakada dakar berarekin. Horren aurrean, Udalak Asesaren bidez erantzuna eman nahi izan dio. Horretarako lur barriak lortu ditu eta horrekin batera 30. poligo-

noaren haunditzea etorri da. Aparatamentuak ere 100m karratutik 75m karratura jaitsi nahi ditugu.

Beste ekintza interesgarri bat Durana kalean egin gura dugu. Durana kalea nahiko hutsik dago eta guk horri soluzio bat bilatu nahi diogu. Etxe barriak egiteaz gain, daudden etxeak erreabilitatu nahi ditugu. Honen ondorioz nahiko etxe politak urtengodute, prezioonean eta gainera Durana kaleari beste bizitza bat emango diote.


• **Baina urtero demografia behera doa eta etxebizitzak egiten jarraitzen badugu, kanpoko jendea etorriko da bizitzera Atxabaltara?**

• Bai. Kontuz ibili behar da, bestela, Atxabaltak herri nortasuna galdu dezake. Baina beste aldetik arlo positibo bat dauka, prezioaren kontrola.

• **Langabezian zer egin da eta zer egiteko asmoak?**

• Nik uste dut hemen enplegu dinamizatzaile bat sortu behar dela. Guk enpresa desberdinak elkartzuz, beste enpresa bat sortu nahi genuen, lana dinamizatzeke. Baina azkenik ez dugu lortu, nahiz eta oraindik proiektu hori aurrera atarateko ahaleginetan ibili.

Atxabaltan langabezia badago eta nahiko kopuru inportantea gainera. Udalok ez daukagu indar haundiegirik, eta gaineta gaur egun Diputazioko eta



"Etxebizitzekin kontuz ibili behar dugu, bestela Atxabaltak herri nortasuna galdu dezake."

Jaurlaritzako diruak beste leku batzuetara doaz. Baina nahiz eta hori horrela izan, gure ardura eta gure responsabilitatea da.

• **Kulturaren, hezkuntzaren zer dago planteatuta?**

• Hezkuntzaren arazoa, jaiotzaren arazoa da. Horrek istiluak dakartza, eskolek euren artean borrokan egingo dute umeak hartzeko eta irakasleak lana mantentzeko. Aretxabaletan ere arazo bera euki dezakegu.

Kulturaren gertatu dena zera da: jendeak gero eta gutxiago parte hartzen du. Honek bere erantzuna dauka, lehen dena amateurismo hutsean egiten zen, baina orain gauzak asko aldatu dira. Baina, nire ustez, garrantzitsuena kuadrila bakoitzak bere delegatua eukitea inportantea litzateke, dinamika kulturala indartu dadin.

Sebastian Uribetxebarria Atxabaltatik Coloniara

- **Non jaio zinen?**
- Goroetan. (Atxabaltan)
- **Zergatik joan zinen?**
- Kausa sozialengatik joan nintzen. Nik lan sozial eta hezitzailea egin gura nuen.
- **Zein izan zen zure lehenengo etxebizitza?**

• Girardoten. Han 3 urte egin nituen eta "Eskola Kooperatiba Espiritu Santo" eraiki genuen. Eskola horretara, beste eskola batzutatik botatako neska-mutikoak etorten ziren. Lehenengo urteak oso gorrak izan ziren.

Handik Medellinera joan nintzen. Nik hemen egindako ikasketak, ez ziren hango egoerara moldatzen eta nekazal giroan lan egin gura nuen, "Tecnologia Agruapekaria" ikastera joan nintzen. Hori bukatzean Guatikara joan nintzen, han lana eskatu nuen eta azkenean, San Klemente institutoan sartu ninduten.

• **Ze inpresio egin zizun lehenengo aldiz?**

• Nahiko gogorra, kulturen arteko txokea ikusten da. Jendearen



izateko modua oso desberdina da. Girardoteko mutilak oso maitagarriak dira, baina borrokalaria. Nik hemendik, erakusteko exigentzia maila handia eroan nuen, baina aldatu beharra izan nuen.

Gainera, oso po-break dira. Baina eurak ondo sentitzen dira dau-den moduan eta euren egoeraren aurrean nahiko sumisoak ikusten dira.

• **Ze alde dago zuk ezagututako Aretxabaleta eta oraingoaren artean?**

• Nik Aretxabaleta umetan ezagutu nuen eta orduan nekazaritzatik bizitzera erria zen.

Aretxabaletan aldaketa interesgarriak eman dira. Industria aldaketa handia egon da, laminazioa, Iturbe... desagertu egin dira eta kooperatibak sortu. Etxebizitzak eta zerbitzu mai-

la ere aldatu dira.

• **Ze alde dago zure herriko eta Aretxabaletako jendearen artean?**

• Hango jendea atsegina da, baina lotsatia. Jendeak han ikusten zaituenean, 5 edo 6 galdera egiten dizkizu agurtzeko, hemen Atxabaltan askoz desberdinagoa da. Hango jendea askoz gertuago sentitzen duzu, hemen independenteagoak gara.

• **Ze alde dago zure herriko usuario eta Aretxabaletako usuarioen artean?**

• Han hildakoak 5 urte enterratuta egonda gero, hazurrak lur azpitik atara eta kaja txiki batzuetan sartzen dituzte. Gero izena ipini eta kapila txiki batean uzten dute.

Jaiak ere oso desberdinak dira. Han norbat jai batera gonbidatzen dutenean, jai 8retan hasten da, aguardiente edanez eta horrela 12ak arte. Han inportanteena musika, dantza eta edatea da. 12etan bakoitzari plater txiki batean, arroza eta oilasko zati bat eroaten zaizkio eta gero jai auzetako 6ak edo 7rak arte luzatzen da.

• **Zeure burua atxabaltartzat daukazu?**

• Bai atxabaltara sentitzen naiz. Han bizi arren, eta hiru urtetik behin etorri arren, hemengo barri izatea gustetan zait.

Joan zen eguaztenean U.D.Ako ekiptoak datorren denboraldiari hasiera eman zion. Honen berri eukiteko U.D.Ako zuzendaria den Eduardo Altuberekin egon gara berbetan.

Berak esan digunez igazko denboraldian baino gorago egotea espero dute, horretarako jokalarriak barriak ekarri dituzte eta al-



Errasti anaiek, joan zen eguaztenean jokatu zuten pelota finalean 22-18 irabazi zioten López eta De Santosi. Errenderin jokaturako final hori izan da Atxabaltarrek irabazi duten lehena.

U.D.A datorren denboraldiari begira

daketa batzuk egin dira. *"Imanol porteroa eta Garro erdilaria Arrasatera joan dira eta Txus porteroa, Aitor Balzategi eta Enrike Nieto ere baja izan dira. Altak berriz, Jesus Mari Etxebarria entrenatzailea (Kilimonetik), Jose Luis Arrese, atezaina (Kilimonetik), Otxandiano, defentsa (Arrasatetik), Mikel Luermo, erdilaria (San Andresetik) eta Raul Leibar, aurrelaria (Arrasatetik)"*

Datorren urterako zuzendariak ez du helbururik jarri gura. *"Helburu horiek betetzen ez badira, desilusio handia*

izaten da eta. Helburu bakarra joan zen urtean baino aurrerago geratzea izango da eta goian ibili beharko dugu. Hori dagure ilusiorik handiena. Horretarako iazko jokalarri berak dauzkagu eta jokalarri berriek ekipoa indartuko dute. Goian ibili daitekeela esan dezakegu".

Helburu horiek betetzeko, Atxabaltarren laguntza beharko dute. *"Joan zen urtean, futbol zelaira jende ugari joaten eta aurten ere gauza bera espero dugu. Ekipoa goian ibiltzen denean ere, jendeak gehiago laguntzen*

du."

Guzti honetarako eta beste talde guztiendako 92/93 denboraldirako presupuestoa 9 milioitakoa izango da.

Azkenik iazko balantzea eskatu genion Eduardo Altuberi, UDAREN zuzendariari. Bere ustez ekainean bukatutako denboraldia benetan positiboa izan zen. *"UDA hartu genuenean zorren bat edo beste zegoen eta guzti hau 8.000.000tako presupuestoaz hartu genuen eta denboraldia bukatzean 1.000.000 pezetatako superabitaz bukatu genuen."*

Joan zen zapatuan jokatu zen futbito finala. Finala *"No Saben" taldeak eta "W.C" taldeak jokatu zuten. Arauzko 40 minutu pasatuta gero, binako enpatea agertzen zuen markagailuak. Azkenik penaltietara jo behar izan zuten irabazlea nor zen erabakitzeko. Penaltietan irabazlea "No Saben" taldea izan zen.*

SAGASTA ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

IMANOL ARRAZOLA

KLINIKA DENTALA


Otalora, 18 - 1.º D
Tfnoa: 79 93 55



Sport
SASIAIN

Zaraia, 4
Tfnoa: 79 77 63

Aretxabaleta



Oporretan sartu gara eta, urtero izaten den legez, "Marko Polo-ren sindromea" nagusia da gure herrian. Eguneroko beharrak ahaztu guran edo, bapatean bidaiari amorratu bihurtzen gara.

Gaurko pertsonaia, bidaiaria ere, ez zen

"Marko Polo sindromearen" biktima izan: XVI. mendeko sindrome nagusiak oso izen ezaguna zuen: Amerika. Juan de Uribe merkataria zen eta Medina del Campo-n, Gaztelako XVI. mendeko finantziar eta merkatalgune os-

petsuan, zuen bere bulego nagusia. Arazoren bat izan zuen edo, Ameriketarako bidea hartu zuen Juanek, bere sasikumea zen Juan de Uribe txikia Atxabaltara bidali ondoren, hemen bizi ziren eta mutikotxoaren izeko bi. Eta horrela, diruaren hotsari jarraituz, Santo Domingora abiatu zuen gure pertsonaia. Hango giorra laster moldatu zen eta diru apur bat egin ondoren gaur egun den Coloniako Rioacha hiriari ezarri zuen bere egoitza. Rioachan eman zuen denboran, pattarra, azukrea, ardoa, arkasatsa, gazitutako arrainak eta perlak saltzen ibiliz, mapan agertzen den Karibeko "Costa de las Perlas" delako inguruan.

Juan de Uribe, 1587 urtean hil zen, aberastuta zeharo. Bere semeari utzitako ondasunen zerrendan etxeak eta aberak ezezik hamazortzi esklabu ere aurki ditzaizkegu, euren izenekin eta guzti (Juan Mandinga, Vernavela, ...). Su-basta batean, ondasun zerrenda hau Europara bidaltzeko prest diru bihurtu zen. Horrela, hona heldu zen kapitalak ez zekarren Ameriketako hustiapen basatiak zuen usain kutsatua.

Eta denok pozik.

ERRETRATOAREKIN JOLASEAN


- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

- Asmetan dutenen artean Everest espedizioko kamiseta bat zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

Non dago argazkian ageri den leihoa?

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Larrino)



Aurreko lehiaketaren irabazlea MARTIN ANTIXIA izan da. Zorionak!

Erantzuna:

- Izen-abizenak:
- Helbidea:
- Tfnoa:

AMANTALAZ



Oraingoan sukaldaria: Rafa Valdezate.

Makailoa "Ajoarriero" erara

Lau lagunentzako osagaiak:
Birrindutako eta gatz bako makailoa.
Kipula.
Berakatzka.
Piper berdeak.
Piper gorri zatiak
Bi/hiru goilarakada tomate.

Zelan egin:

Buztinezko lapiko batean olio bota eta hau berotzean, zatitutako kipula, piper berdeak eta berakatzak bota poliki-poliki bigunduaz joan daitezten. Biguntzean tomate bota, apur bat frijitu dadin eta azkenik makailoa bota. Guztia lapikoan dagoela piper gorriekin-apaindu eta 20 minutuz egosten utzi.

POESIA

Bizi eta Elkarbizi

Begi urdin, orlegi edo beltz
denak dira gure berdin.
Gure gizartea zai dago
beraien integrazioa eman dadin.
Beraien maitasun agerpenak
eta sentsibilitateak
bihotza bigunarazi,
zergatik ez beraiekin elkarbizi?
Errudun, nor da errudun?
Inor. Araindikoarenbat agian.
Zoritxarrez edo zorionez
beraiek dira pertsonak
eta beraien ingurukoek
goratzen dituzte beraien alde onak.
Beraiek duten maitasun
beharra asetzea da
oraingoan gure lana,
honetarako utz dezagun dana,
beraiei laguntzeak badu zerizana.
Pertsonak badira:
buru, esku pareta eta bi hankakoak.
Baina ezin ditugu baztertu
direlako diren bezalakoak.
Eskertzeko da bai,
Aratz taldeak bihotzez eginiko lana,
beraiek lortzen ari bait dira
persona hauen integrazioa,
merazitako integrazioa.

Eider Otxoa

KOMIKIA



14

EGUAKOTXA

JAI BEZPERA

• 4,15 etan, kanpai jotzea Andra Mari jaien berri emanez.

• 4,30etan, **marrazki lehiaketa haurrentzat**, 12 urte arte. 12, 16 urte bitartekoentzat, **kuadrilen arteko jokak**.

• 4,30etan, **XIV Mus Txapelketa**.

• 7etan, **erraldoi eta buruhandien kalejira** dultzaineroak lagunduta.

• 7,30etan, **Meza** eta ondoren Ama Birjinaren amaiera eta Agur Erregina ospetsua.

• 8,30etan **Ikurriñari Agurra** eta **txupinazoa**.

• 10etan Saltsamaltza taldearekin **dantzaldia**.

• 11etan, **VII. Bolo txapelketa**.

15

ZAPATUA

ANDRA MARI EGUNA

• 11,30etan **Zumaiako Bandaren** etorrera.

• 11,30etatik ordu 1etara **umeentzako parkea**.

• 12etan **Meza Nagusia**.

• Ordu 1etan Zumaiako Bandaren **Kontzertua**.

• 5etan **Ardoa Barrura** Txarangarekin kalejira.

• 7,30etan Zumaiako Bandarekin **dantzaldia**.

• 10etan, Ardoa Barrura txarangarekin **dantzaldia**.

• 10,45etan, **pilota partidua**.

• 11etan, **Ekaitz taldearekin dantzaldia**.

• Pilota partiduak amaitzerakoan, **suzko Erruerak**.

16

DOMEKA

• 9etan **Txirrindularitza**.

• Ordu 1etan, **Pentaklon**.

• 5etan, inkansables txarangarekin **kalejira**.

• 6etan, **joku herrikoiak**.

• 8etatik gaueko 12etara, **parkea**.

• 11etan Oskar eta Mikel **trikitilarietako dantzaldia**.

• 10,45etan, **Pilota partiduak**.

17

ASTELEHENA

• 10,30etan kalejira herriko txistulariekin.

• 11etan Danok Bat txarangaren **etorrera**.

• 11,30etan **sokamuturra**.

• 12etan, umeentzako **tailerrak**.

• 12,30etan Danok Bat txarangarekin **kalejira**.

• 2,30etan **herri bazkaria**.

• 5,30etan, buruhandi **eta** Erraldoien kalejira

• 6,30etan **Sokamuturra**.

• **Poteo herrikoia** ikuzka txarangarekin.

• 10,30etatik goizalderarte, ikuzka txarangarekin **kalejira eta Dantzaldia**.

• **Jai amaiera**.

ARETXAZOKA

Etxebizitzak

• Etxebizitza alokatu nahi dugu. Tfnoa: 77 02 42

• Alokatzeko etxebizitza bila gabiltza. Interesatuak deitu, 79 83 13 telefonora eta Marijogatik galdetu.

• Garaje bat salgai Otalora, 11 kalean. Tfnoa: 79 47 62

Lana

• Esperientzidun batek ingeleseko klaseak emango lituzke. Interesatuak deitu, 79 04 95 telefonora.

• Esperientzidun neska batek, udaran umeak zainduko lituzke. Interesatuak deitu, egunean zehar, 79 97 56 telefonora.

Salerosketak

• Ardi-txakur kumeak salgai. Tfnoa: 79 67 76

• Umeentzako seaska eta kalean ibiltzeko karroa salgai. Tfnoa: 79 77 79

• Bost lagunentzako kanping denda salgai. Tfnoa: 78 04 89

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SEAT

GARAGE
OSKAR
 Basabe poligonoa
 A - 2 - 4
 Tfnoa: 79 98 74

ZARIA TABERNA
 GOIZEKO 5,30etatik
 ZURE ZERBITZUAN

 MANTEKA
 ANAIAK

BASABE
JATETXEA
 Menu eta afariak
 Industrialdea
ARETXABALETA
 Tfnoa: 79 31 84

GARAGE
 ▪ EDER ▪
 Karrozeria
 mekanikoa
 IBARRA Z/A
 Tfnoa: 791666
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA
 ALTZARIAK
 DISEINUA
 APAINKETA
 BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA


 **EROSKI**
 Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.
 DURANA ETA ARALAR KALEETAN
 Tfno: 79 16 05

 **ARRIZABALAGA**
ARROZTEGIA
 Sukaldeko altzairu eta armairu enpotratuak
 Tfnoa: 79 49 73 ARETXABALETA

NERIAN
 Loradenda
 Otorora, 14 behea
 Tfnoa: 79 70 66

"HERRASTI"
 AKEITA ETXEA

 Aralar kalea, 7
 Tfnoa: 79 32 83

 Mitarte, 21 behea
 Tfnoa: 79 79 79
ARETXABALETA


Arxhitegi, S.L.

GOZODENDA
 eta **IZOZKIDENDA**
 Otorora Kalea; 4
 Tfnoa: 77 13 57

IBARRA ESTANKOA
TABAKO, IKAS MATERIALA ETA ZERGA
IMPRIMAKIEN SALMENTA
 Bizkaia, 3
 Tfnoa: 79 23 77
ARETXABALETA

RKL
INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU,S.A
 Mitarte, 23
 Tfnoa: 79 96 66

NOVEDADES
 **FELI**
 MODAN DAGOEN GUZTIA!
 Iparragirre, 4
 Tfnoa: 79 21 24
ARETXABALETA



ATXABALTARRON ALDIZKARIA

Aretxagazeta Elkarte, Kultur-etxea.
ARETXABALETA
Tlfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila.